

2018ko memoria_



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

2018ko memoria_

Aurkezpena _3

1_ Eragiketa estatistikoak _4

2_ Ikerketa kualitatiboak _6

Aurkezpena

Memoria honetan laburbiltzen da euskal kulturaren sektorearen gaineko azterketa- eta prospekzio-tresnen hornitzaile nagusia den Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) azken urtean egindako lana. Hala, 2018ko balantzeak informazio-bankua handitzen du, eta ikerlan kualitatibo berriak gehitzen ditu kultura-eztabaidetan puri-purian dauden gaiei buruz.

Helburu hori lortzeko, Behatokia adi dago kultura-joerei, galderak egiten dizkio bere buruari, hipotesiak formulatzen ditu, metodologia egokiena bilatzen du, kultura-politiketako sektoreekin eta adituekin hitz egiten du, adierazleak kontrastatzen eta interpretatzen ditu eta euren erabilgarritasuna baloratzen du.

Baina ezaugarri horiek dituen organismo baten helburu nagusia ez da informazioa eta ezagutza metatzea. Behatokiaren balioa garrantzi bereziko bi kontutan datza. Alde batetik, euskal kultura-sistema osoa elikatzen duenez, posizio zentrolean dago multzoaren ikuspegi kritikoa izateko, erabakiak hartzea errazteko eta politika berriak proiektatzeko. Kultura-politikaren eragile osagarria da, eta errealitatean bertan dihardu, hartan parte hartzen du, hari buruz hausnartu eta hartan inplikatzeko, kultura-testuinguru heldua sortzen lagunduz. Eta testuinguru hori aldatzeko borondatea dauka beti. Beste alde batetik, ezagutzarekin lan egiten duen organismo bat izanik, kalitate oneko adostasunak lortzeko bide ematen du; alegia, politikak erabakitzen, adosten eta hitzartzen laguntzen du, argudio sendoekin.

Horrenbestez, 2018ko memoria hau irakurtzera gonbidatzen zaituztegu. Behatokiak ematen duen zerbitzuaren ikuspegi globala eskaintzen du; eta, bertatik abiatuta webgunearen bidez zabaltzen dituen ikerlanetan sakondu daiteke. Bilatzen dituzten datu eta adierazleak aurkituko dituzte batzuek; beste batzuek, berriz, ezezaguna zitzaien informazioa deskubrituko dute. Bestetzuok interesatuta egongo dira egungo kultura-politiken inguruan gori dauden eztabaidetan, noiz teoritik eta hausnarketatik abiatuta, noiz ekintzatik abiatuta, estrategia eta proposamenekin. Hori lortzen bada, Behatokiak bere helburua bete du, alegia: euskal kultura-errealitateari ekarpenak egitea eta bertan eragina izatea.

1_Eragiketa estatistikoak

KEBk sustatu eta kudeatzen dituen ohiko eragiketa estatistikoek markatutako kadentziarekin bat etorrita, 2018an, kultura-alorreko Finantzaketaren eta Gastu publikoaren Estatistikaren emaitzak paratu eta argitaratu dira, eta Arteei, Kultura-Industriei Eta Sormen-Industriei Buruzko Estatistikak diseinatu eta kontrastatu dira. Horrez gain, aurtengo beritasun nagusia Euskal Herriko Kultura-ohituren, Praktiken eta Kontsumoaren Estatistikaren prestaketa izan da.

Amaierako txostenak eta adierazleak Behatokiko [webgunean](#) kontsulta daitezke.

KULTURA-ALORREKO FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOAREN ESTATISTIKA (2016)

Eragiketa hori oinarritzkoa da EAEn kulturen egiten den gastu publikoaren eboluzioa eta egoera ezagutzeko; eta, horretarako, hainbat erakunderen aurrekontuak ikustatu dira, zehazki 151 udal, 51 organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazio, hiru foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza aztergai hartuta. Hala, 2016ko datuek baieztatzen dute kultura-alorreko gastu publikoa berreskuratzen ari dela: EAEn 428,9 milioi eurokoa izan zen kultura-alorreko gastu kontsolidatua; alegia, 197,4 euro herritar bakoitzeko. Gastu horretatik, % 62,7 udalek egin dute (268,8 milioi); foru-aldundiek, % 20,2 (86,7 milioi); eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, % 17,1 (73,3 milioi).

ARTEEI, KULTURA-INDUSTRIEI ETA SORMEN-INDUSTRIEI BURUZKO ESTATISTIKA (2017)

Estatistika bikoitz hori abian jartzeko, beharrezkoak izan dira diseinu-lan zehatza eta elkarte sektorialekiko kontraste-lan sakona. Jakina denez, arteei eta kultura-industriei buruzko estatistikak hamarkada bateko ibilbidea dauka. Kasu honetan, beritasuna zinema-aretoei buruzko informazioa kontuan hartzea izan da, emanaldi zinematografikoen gaineko informazioa osatzeko. Guztira, hasierako errolda 1.068 eragilekoa izan da, arte eszenikoak, ikusmen-arteak, musika, liburuaren industria eta ikus-entzunezkoak aintzat hartuta.

Aurrerapen nagusia sormen-industriak ikerlanera batzea izan da; hau da, alde zuzenetik, erroldak landu eta araztu behar izan dira (800 eragile inguru), eta galde-sortak diseinatu eta kontrastatu behar izan dira sektore berrientzat: hizkuntzaren industriak, arkitekturarenak, diseinuarenak, publizitatearenak, bideo-jokoenak eta modarenak.

2018an, estatistiken diseinua, sektoreekiko kontrastea eta landa-lana egin da.

EUSKAL HERRIKO KULTURA-OHITUREN ETA -PRAKTIKEN ESTATISTIKAREN DISEINUA ETA LANDA-LANA (2018)

Euskal Herriko kultura-ohituren eta -praktiken 2018ko estatistika berriaren diseinua eta landa-lana egin da. EAEn 3.950 inkesta egin dira; Nafarroan, 1.350; eta Iparraldean, berriz, 1.307. Lan horri esker, ohituren eboluzioa ezagutu ahal izango da, lehen inkesta egin zenetik hamar urte pasa direnean, eta, horrekin batera, populazioaren ohituren gakoan argazki zehatza lortuko da.

ENPRESEN, ENPLEGUEN ETA LAN-MERKATUEN TXOSTENA (2016)

Ikerlan horrekin, balioa ematen zaio beste organismo batzuek sortzen duten informazioari —hor dira, besteak beste, Eustaten (DIRAE) eta Lanbideren lanak—, informazio horri esker ikuspegi zabalagoa hartzen baitute Behatokiko estatistika sektorial propioek. DIRAEko datuak ustiatzeari esker, EAEko kultura- eta sormen-industrietako enpresa-sarea (15.437 enpresa) eta enpleguak (45.365 langile) kuantifikatzen dira. Datu horiek erreferentziazat hartu dira Europar aurkeztutako txostenetan, Creadis3 eta KSI Berritzaile programen testuinguruan.

OHITUREN PANELAREN LAUGARREN JASOALDIAREN LANDA-LANA

Azaroan eta abenduan, Kultura-ohituren eta -praktiken Panelaren jasoaldi berriko landa-lana amaitu da, zeinak praktika digitalen inguruko abagune-blokea hartzen baitu. Emaitzak 2019ko hasieran argitaratuko dira.

BIGARREN MAILAKO ITURRIEN TXOSTENA

Bigarren mailako iturrien txostena landu da EUSTATEk etxeetako kultura-kontsumoaren, IKTen erabileraren eta irakaskuntza pribatuen inguruan batu dituen datuekin.

Hasierako programan aurreikusi ez diren bestelako jarduerak.

PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEAREN (LEHENDAKARITZA) 66. SOZIOMETROAREKIKO LANKIDETZA

Behatokiak [66. Soziometroaren](#) diseinuan kolaboratu zuen, zeinetan kultura-ohituren inguruko informazioa batzen zen. Diseinua orokorrean kontrastatu, galderak berrikusi, formulazioak zehaztu eta genero-ikuspegia gehitzeaz gain, kulturaren gizarte-irudiaren gaineko atala gehitzea erabaki zen, eta emaitzak oso interesgarriak izan ziren.

ADITUEKIN EGINDAKO JARDUNALDIA

Maiatzaren 9an Bilbon eginiko [jardunaldi](#) honen helburu nagusia ohituren eta Industria Kultural eta Sortzaileen (IKS) eragiketa estatistiko berri biak nazioarteko eta tokiko adituekin kontrastatzea zen, adierazle berriak diseinatzeko prozesuen arazo nagusiez eztabaidatzeko eta gaur egungo adierazleak gaurkotzeko, errealitate berrietara egokitze aldera.

Oso profil desberdinetako aditu ezagunak joan ziren lansaia, erakunde hauetatik besteak beste: Boekman Fundazioa, Europako Batzordearen Ikerketarako Zentro Bateratua, Piamonteko Kultura Behatokia edo Kulturaren Ikerketarako Europako Institutua.

2 Ikerketa kualitatiboak

Kultura-politikatiko ikuspegiak bildu dira 2018ko katalogora, honako gai hauek jorratzeko, besteak beste: nazioartekotzea, jasangarritasuna, haurtzaroa, zientzia, banaketa, finantzaketa eta kultura- eta sormen-industriak. Urtean zazpi ikerlan egiten dira, beharrian eta eskaera sektorialak, kultura-politiken lehentasunak eta gizarte- eta ekonomia-joera orokorrak aztertzeko. Ikerlanok beste testuinguru batzuekiko begirada zabala, esplorazio-izaera eta izaera propositiboa daukate.

Txostenak Behatokiko [webgunean](#) kontsulta daitezke.

KULTURAREN NAZIOARTEKOTZEA: IKUSKERAK, ESTRATEGIAK ETA TRESNAK

Txostenak nazioartekotzearen eta kulturaren arteko harremanak aztertzen ditu bi ikuspegi hauetatik: edukia eta merkatua. Lehen ikuspegia lotuta dago gure herria nazioartean ezagutaraztera eta kanpoko irudia hobetzera bideratutako ekintzekin. Bigarren ikuspegia, aldiz, ingurune ekonomiko globalizatu, interdependente eta irekian, kultura- eta sormen-produktuak merkatuetara esportatzearekin dago lotuta.

Bi ikuspegi horiei kanpoko kultura-eremuaren bereizgarria den beste ardatz bat gehitu behar zaie, alegia: ekintzak gauzatzen dituzten eragileen izaera publikoa edo pribatua. Eskema horretatik abiatuta, Euskadiren kasua aztertu da, eta, horretarako, nazioartekotzearekin lotutako estrategia, politika eta programa zehatzei heldu zaie.

KULTURA ETA JASANGARRITASUNA: KONTZEPTUAK ETA ESTRATEGIAK

Ikerlan hau kulturaren eta jasangarritasunaren arteko binomioan sakontzeko nahitik abiatzen da. Orain arte, erronka jakin batzuetan zentratu izan da analisia; zehazki, kulturaren aldagaia garapen jasangarrira bideratutako estrategia politikoetan sartzeko erronketan. Puntu honetara helduta, diskurtsoaren eragina kontrako ikuspuntutik ebaluatzeko beharriana sortzen da: garapen jasangarriaren kontzeptua nola sartu den kulturean, alegia. Karraskan-ek urrian jasangarritasunaren inguruan antolatutako jardunaldietan aurkeztu zen txostena.

UMEAK ERE KULTURAZALE

“Kultura eta pobreziaren arteko harremana” ikerlana (2016) hasitako ildo beretik doa. Kasu honetan, umeen eta kulturaren arteko erlazioa aztertu du ikerlanak, umeek gizarte-talde kaltebera osatzen dutela aintzat hartuta. Lehenbizi, hiru begiradaren arabera esparru orokor bat eskaintzen du txostenak: haurtzaroa, fenomeno soziologiko gisa; familia-eremuko edo haurtzaroko desparekotasunean eragina duten faktoreak, Euskadiko datuetan oinarrituta; eta haurren eskubideak, kultura-eskubideekiko gurutzaketak aztertuta.

Bigarrenik, gogoeta egiten da umeak ere kultura-eskaintzaren publikotzat hartzeko nondik norakoen gainean. Etorkizuneko publiko izango direnez, haien kulturako gaitasuna eta gustuak pizteko balio behar du kulturak, horrek emaitza ekitatiboak ekartzeko moduan. Horretarako, gogoetarako elementuak eta ekintzarako gakoak eman ditu ikerlanak.

ZIENTZIA KULTURA-POLITIKEN ESPARRUAN

Zientziak gure gizartearen ezagutzari, trebakuntzari, balioei eta sinesmenei ekarpenak egin dizkien arren, zientzia-kulturaren sustapena ez da izaten kulturaren arloko ohiko plan, programa edo eragileen osagaia. Adierazpen bion artean lotura saihetsezinak dauden arren, zientzien eta arteen profesionalak bereizita bizi dira neurri handi batean.

Txostenak, hasieran, kontzeptu-oinarriak identifikatzen ditu zientzia kultura-politiketan txertatzeko; horretarako, zientziak kultura-politiketan duen espazio natural gisa identifikatzen du zabalkundearen espazioa, eta artearen arloko eta zientzietako profesionalek baterako arte- eta zientzia-proiektuak egiteko premia azpimarratzen du. Bestalde, zientziaren eta kulturaren eremuan dauden ekimenen azterketa egiten da, eremuko erreferentzia diren agiri estrategikoez hausnartzen da eta eragile eta ekimen garrantzitsuak identifikatzen dira. Goragokoa kontuan izaki, azkenik, zientzia kultura-agendan integratzeko orientazioak eskaintzen dira.

BANAKETAK KULTURAN DUEN ZEREGINARI BURUZKO AZTERKETA, TESTUINGURU DIGITALAREN AURREAN: IKUSPEGI OROKORRAK ETA SEKTORIALAK

Kultura-banaketa fenomeno bereizgarria da, beste sektore batzuekin alderatzen badugu. Kultura-produktuen izaera dela-eta, banaketaren negozioa estuki dago lotuta autore-eskubideekin eta obra ustiatzeko eskubideekin. Digitalizatzeko prozesuak biziki zaildu du agertokia; hau da, hasieran, arauak oso argiak eta funtzionalak ziren; orain, ordea, arauak gutxi definituak eta moldatu gabeak dira, eta, ondorioz, deslari geratu dira nolabait, kokaleku jakinik gabe.

Txostenak testuinguruan jartzen du banaketaren arloa, kultura-eremuaren baitan eta digitalizatzeko-prozesuarekin harremanetan. Azken helburua, beraz, banaketaren eragileen gaineko ikerlan espezifikoak Kulturaren Euskal Behatokiaren eragiketa estatistikoetara biltzeko beharra eta aukera aztertzea da.

KULTURA- ETA SORMEN-SEKTOREEN FINANTZAKETA-EREDUAK

Finantzaketa eskuratu ahal izatea erronka garrantzitsua da oraindik kultura-eta sormen-sektoreentzat. Europako Kultur Agenda berriak berriaz aipatzen du hori. 2016tik, Europak badu Europako Inbertsio Funtsak kudeatutako kultura- eta sormen-sektorearen berme-tresna, eta Europa Sortzailea programaren bidez hel dakioko horri.

Administrazioa eredu berriak ari da esploratzen, kultura- eta sormen-sektoreek errazago eskuratu dezaten finantzaketa. Txostenaren helburua kultura- eta sormen-sektoreen profilean sakontzea, euren finantzaketa-beharra identifikatzea eta behar horiei erantzuna emateko aplikatzen ari diren tresnak aztertzea da.

KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIENTZAKO POLITIKAK

Europar eta bertan kultura- eta sormen-industrien alde egiteari esker, hobeto ezagutzen da zer-nolako eragina izaten ari den sormen-industrien bultzada politika publikoetan. Hortaz, interesgarria da aztertzea zer erronka eta beharrian sortzen diren, zein inplikazio dauzkaten eta zein tresna ari diren aplikatzen beste ingurune batzuetan.

2018ko memoria_



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA